



GURE MUGEN KANPOKO ETA BARRUKO BERRIAK

EUSKALDUNA JAUREGIA ETA BARAKALDOKO UDALA EKPAREN PROGRAMARI ATXIKI ZAIZKIO

Orain dela gutxi, Euskalduna Jauregia eta Barakaldoko Udala atxiki egin zaizkio Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020rako programari. Era horretan, euren konpromisoa formalizatu dute ingurumen-irizpideak euren kontratazioetan sartzen joateko.

EUSKADIKO EKPAREN PROGRAMAREN HEDAPENAK EL DIAMANTE DE LA COMPRA® AERCE SARIAREN AITORTZA JASO DU

2019ko edizioan, Erosketa, Kontratazio eta Horniduren Profesionalen Espainiar Elkartearen saria -Sektore Publikoaren kategorian- erosketak eta kontratazioak sektore publikoan ingurumen-irizpideekin normalizatzeko euskal ekimenarentzat izan da. Ekimen hori egituratzen da Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen programaren bitartez eta sektore publikoko erakundeak berari atxikitzen bitartez.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAK BEHARREZKOAK EZ DIREN PLASTIKOAK EZABATZEKO EKIMEN BAT ABIATU DU

Ekimen honek -[New Plastics Economy Global Commitment](#) ekimenarekin bat etorriz-, 2025erako helburu handinahiak ezartzera animatzen ditu erakundeak, honako hau lortzeko: arazoak sortzen dituzten edo beharrezkoak ez diren plastikozko ontziak ezabatzea; erabilera bakarreko irtenbideetatik berrerabilpen ereduera pasatzea; plastikozko ontzi eta bildukin guztiak % 100 berrerabilgarriak, birziklagarriak edo konpostatzeko modukoak direla segurtatzea; eta eduki birziklatuko helburu handiak lortzea plastikoetan. Nazio Batuen Erakundearen Kontratazio Jasangarriaren Programak ere parte hartzen du ekimen honetan.

Informazio gehiago (ingelesez): [\[+\]](#)

ERRESUMA BATUKO OSASUN ZERBITZU NAZIONALAK KANPAINA BAT ABIATU DU ERABILERA BAKARREKO PLASTIKOEN ERABILERA HANGO OSPITALEETAN MURRIZTEKO

Erresuma Batuko Osasun Zerbitzu Nazionalak murriztu nahi du erabilera bakarreko plastikoen erabilera bere asistentzia-zentroetako elikadura-zerbitzuetan; horri begira, plastikoen murrizteko promesa bat sinatzeko eskatu die bere zentroetan diharduten hornitzaile, saltoki eta erakundeei, 2020 eta 2021erako helburu konkretuekin.

Informazio gehiago (ingelesez): [\[+\]](#)

FRANTZIAKO ESKOLA-JANTOKI GUZTIEK AUKERA BEGETARIANO BAT ESKAINI BEHAR DUTE GUTXIENEZ ASTEAN BEHIN

Azarotik aurrera, eskola publiko eta pribatuetako lehen eta bigarren hezkuntzako jantoki guztiek menu begetariano bat eskaini behar dute gutxienez astean behin, 2018-938 Lege frantsesaren arabera, hor arautzen baitira nekazaritza eta elikadura sektoreko harreman komertzialen oreka eta guztiontzat eskuragarria den elikadura osasuntsua eta jasangarria. Unibertsitateko jatetxeek ere, behartuta ez egon arren, aukera hori eskaintzeko konpromisoa hartu dute. Hau da legeak jasangarritasunaren alorrean aurreikusten dituen jardueretako bat, establezimendu publikoetako jantoki-zerbitzuei dagokienez.

Informazio gehiago (frantsesez): [\[+\]](#)

ROTTERDAMGO UDALAK KONTRATU BAT EZARRI DU GEHIENBAT BERE LURRALDEAN SORTUTAKO ELEKTRIZITATE JASANGARRIAREN HORNIDURARAKO

Rotterdamgo udalak elektrizitatea hornitzeko kontratu bat sinatu du, 10 urtekoa, bere operazio guztietarako (eraikinak, argiteria publikoa, ponpaketa-estazioak...). Energia hori eolikoa eta eguzkikoa da. Kontratuaren asmoa da hiriko trantsizio energetikoari laguntzea, bai % 100 berriztagarria den energiara pasatuz eta bai turbinak eta eguzki-planak bere lurraldean jartzearen bidez.

Informazio gehiago (nederlandez): [\[+\]](#)



EUSKADIKO TRESNA ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

ADIBIDE-PLUGUAK ARROPA LAURAKO, UNIFORMEETARAKO ETA ENERGIA ELEKTRIKORAKO

Ihoberen erosketa berdearen webgunetik jadanik deskargatu daitezke ingurumen-irizpideak integrazteko adibidetzat har daitezkeen 2 plegu: Osakidetzako arropa lau, jantzitegia eta uniformeen hornidurarena, eta Eusko Legebiltzarreko energi elektrikoaren hornidurarena.

Informazio gehiago produktu multzo horien irizpideen ataletan: [\[+\]](#)

EROSKETA BERDEKO JARDUNBIDE EGOKIA POLIZIAREN EUSKAL AKADEMIAN

Jadanik kontsulta daiteke Poliziaren euskal akademiako salmenta-makinen zerbitzuan ingurumen-irizpideak txertatzeko jardunbide egokia. Izan ere, beraren lizitazioan efizientzia energetikoko irizpide zorrotzak sartu dira makinetarako eta kontratuan sortzen diren hondakinen kudeaketarako; horrekin batera, jasangarritasun eta osasunari buruzko irizpideak txertatu dira zerbitzuak eskaintzen dituen produktu etarako.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)



GARRANTZIA HARTZEN ARI DIREN EREMUAK:

EUROPAKO BATZORDEAK BIZI-ZIKLOAREN KOSTUAK KALKULATZEKO DITUEN TRESNAK AURKEZTEKO WEBINARRA

Datorren astelehenean, 2019ko abenduak 16, 14:00etan, Europako Batzordeak web-mintegi bat egingo du, helburu hauetarako: bizi-zikloaren kostuen kalkulua egiteko Batzordeak prestatu dituen 5 tresnak aurkeztea eta agintaritzei haien egitura eta ezaugarriak ulertzen laguntzea; horietako bakoitza nola erabiltzen den erakustea, datu errealez baliatuz; eta emaitzen inguruan eta erosketa publiko berdearen ikuspegitik duten esanahiaren inguruan hausnartzea.

Informazio gehiago eta izen-ematea (ingelesez): [\[+\]](#)

Tresnei buruzko informazio gehiago: [\[+\]](#)



HAINBAT JARDUNALDI ETA EKILTADITATIK ESKURA DAUDEN MATERIALAK

JARDUNALDI TEKNIKOA: EROSKETA PUBLIKO BERDEAN GERTATZEN DIREN OHIKO ERRAKUNTZAK ETA NOLA SAIHESTU DAITEZKEEN KONTRATAZIOA HOBETZEKO

Badaude eskuragarria erosketa eta kontratazio publiko berdean gertatu ohi diren errakuntzei eta -kontratazioa hobetzeko- horiek saihesteko moduari buruz 2019ko azaroaren 21ean egin zen jardunaldiaren materialak.

Hemen deskargatu: [\[+\]](#)

Informazio gehiago: ww.ihobe.eus/;

Edozein iruzkin, ekarpen edo iradokizun Ihoberi helarazi dakionez bide hauetatik:

- Telefonoa: **94 423 07 43**
- Helbide elektronikoa: **compra.verde@ihobe.eus**;